

a) Ikasleekin elkarreraginean aritzea

1. maila: Oinarrizkoa

Zailtasunak ditu ikasleekiko harremanetan.

Egiten dituen esku-hartze eta eskaerak ez datoz bat ikasleen ezaugarri eta premiekin.

Zailtasunak ditu ikasleak jarduerak egiten dituzten bitartean gainbegiratzeko, beren segurtasuna bermatzeko eta balizko gatazkak konpontzeko.

2. maila: Garatze bidean

Harreman ona du ikasleekin, eta bat dator beren ezaugarri eta premiekin.

Ikasleak behatu eta gainbegiratu egiten ditu jarduerak egiten dituzten bitartean beren segurtasuna bermatzeko; beren aurrerabidea ebaluatzeko; garapen akademiko, sozial edo emozionalean eta osasunean egon daitezkeen arazoak hautemateko, eta balizko gatazkak konpontzeko.

3. maila: Garatua

Ikasleekiko harreman horrek ikasleek bizi dituzten egoera zailak kontatzeko edo laguntza eskatzeko konfiantza izatea errazten du.

4. maila: Aurreratua

Ezaguna da ikasleei laguntzeko eta konfiantza emateko gaitasuna duelako.

Ikasleek irakaslearengana jotzen dute laguntza, orientazioa, aholkua... eskatzeko.